

UNITATEAREN HASIERAKO JARDUERA

Denboralizazioa	Ordu bat
Materiala	Arbela
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">• Unitateetan zer lan egingo duten aurkeztea.• Ikasleek Lurrari buruz dituzten aurrezagutzak gogora ekartzea.

Irakasleak aurkezpen laburra egingo du: zertaz arituko gara? Zer helburu izango dugu?

Segidan, irakasleak, saio honetan eta sekuentzian egingo dena azalduko du, unitateko helburua azaltzearekin batera. Lanketa hau egiteko, hiru fase bereiziko dira, eta fase horietako bakoitzean hainbat jarduera egingo dira.

Hasierako fase hau baliagarria izango da ikasleek bidaiei eta kontinentei buruz dituzten aurrezagutzak jakiteko. Honekin batera, sekuentzian zehar zer lan egingo duten azalduko zaie ikasleei: lurralde bakoitzeko berezitasunak ikasi beharko dituzte, musika eta dantzak oinarri hartuta.

Garapen-fasean, azken lan edo produktu hori osatzeko eta sortzeko baliagarriak izango zaizkien ezagutzak eskuratuko dituzte, egokituko zaien kontinenteari dagozkionak. Lan hau guztia taldean egingo dute. Asmoa da zenbait herrialde ezberdin ezagutzea. Amaierako faseak egindako guztia berrikusteko balioko die ikasleei.

Hasteko, wegbunean aurkituko duten lehen bideo-sarrera ikusiko dute, unitateari hasiera ematen diona. Ondoren, ikasleek, taldetan, galdera batzuei erantzun beharko diete:



- Ba al dakizue zenbat kontinente dituen gure Lurrak?
- Ba al dakizue kontinente hauetakoren baten izena?
- Gu zein kontinentetan bizi gara?
- Zenbat ozeano daude gure Lurrean?
- Ba al dakizue ozeano hauetakoren baten izena?

Denbora-tarte bat utzi ondoren (5-10 minutu), atera diren erantzunak talde handira eramango dira, eta arbelean idatzi. Ariketa honen bitartez, ikusiko dute zenbat dakiten Lurrari buruz. Hausnarketa hau aprobetxatuta, proiektuan zehar egingo dena azalduko zaie, hau da, egin beharko dituzten jarduerak eta baita prozedura ere.

Taldekatzeari dagokionez, talde bakoitzak kontinente bat landu beharko du. Denborari buruz, aipatuko zaie proiektua hiruhileko oso batean egiteko pentsatua dagoela eta ebaluazio jarraitua izango dela ebaluazio-irizpide nagusia.